

Rin eta rin ezin lorik egin

Miren Azkarate
Badiola

Lo egitearen beharraren garrantziaz ez gara ohartzen arrazoi bategatik edo besteagatik lo egiten ez dugun arte. Orduan konturatzen gara deskantsu ordu horiek gabe zein zaila den egunerokoari aurre egitea. Are zailagoa, umore onarekin! Jende asko ezagutzen dut bere bizitzako momentu jakin batean loarekin arazoak izan dituen; nik neuk ere bai. Dela buruan gai bat edo gehiago bueltaka dabilzkigulako, dela muturreko egoera bat (gertuko norbaiten heriotza,

istripua...) bizi dugulako, dela haur bat dugulako. Kontua da ondorioak askotarikoak izan daitezkeela: interneteko orrialde batzuetan begira aritu naiz eta fisikoak zein psikologikoak izan daitezkeela diote adituek. Kontzentrazioan, atentzioan eta gogo-aldartean eragiten dute, batzuetan antsietatea eragin eta depresiora bultzatu arte. Bai, ni ere identifikatua sentitzen naiz. Era berean, ahulago gaudenez, gure sistema immunologikoa baxu dago eta horrek

edozein birus edo bakterio errazago hartzera garamatza. Beraz, geure burua zaintzeko gomen-dioak ematen dizkigutenean, kirola egiteari eta gutxiago jateari ez ezik, ea garrantzi handiagoa ematen diogun loaren baldintzak zaintzeari; izan ere, konturatzen zarenerako... lo nola hartzen den ere ahaztu zaizu! Ondo lo eginda bizitza desberdin ikusten da, zoriontsuago gara eta denak errazagoa eta politagoa ematen du. Baietz? •

Herkules eta Hidra

Antton Izagirre

Herkules eta Hidra pertsonaiak gizartean eta politikan izan ohi diren botere borrokak irudikatze-ko erabili izan dira historian zehar. Greziar mitologiak kontatzen du Herkules heroi jainkotuak zazpi buruko Hidra sugearen aurka egindako borroka eta haren gainean lortutako garaipena. Kapitalismoaren sorreratik bertatik, elite komertzialek Herkules mitoaren sinboloa, beren interesen defentsan, Hidraren aurka eginiko borrokarekin irudikatu nahi izan zuten. Horrela, Herkules bilakatu zuten arrazoiaren sinbolo, mundu mailako hedapen ekonomikoa zilegi egiten zuen botere eta

mendekotasun berrien jainko. Ordena berri horri kontrajarriaz, desordena, erresistentzia eta inperio eta kapitalismoaren mehatxu modura irudikatuko zuten Hidra. Herkulesek eliteek nahi zuten gobernu ona irudikatuko zuen. Hidraren buru anitzek, behartsuak, zerbitzariak, langileak, esklaboak, pentsalari erradikalak ordezkatzeko zituen. Esan beharrik ez, Herkulesek Hidra menderatu zuen moduan, ekonomian eliteen desirak gailenduko zirela balio unibertsal modura. Egun hauetan, Venezuela aitzakia hartuta, mundu mailan ematen ari diren oreka geopolitiko eta estrategikoen gaurkotasunez jantzi dute arestian go-

gora ekarri dugun borroka mitologiko hori. Gaur egun ere, Estatu Batuek gidatzen duten politika eta estrategia inperialistaren alboan lerrokatu diren Europako estatu, gobernu eta agintariek Herkulesen ustezko jainko izaera arrazionala eta demokratikoa dela aldarrikatzen dute. Odolez eta heriotzaz azpiratu ahal izan zuten Herkulesek Hidra, ez bestela. Hor-txe mehatxua. Herkulesek defendatzen duen ordena eta mundu-ekonomia besterik ez dagoen ustea helarazi nahi digute eliteek, baina Hidrak borrokatu egin behar du, beste ordena baten bila. Ez ote ditu buruak galduko! •